

geyenaz bata beste onura gutxiz: oregatik dio, arlo gaitz onek beartzen gaituenez, arduraz eta begi zuzenez ibili bear degula. Bañan euskal-idazleak oju ta oju daude, itz-beñi oien eske, ezez ta aixa idatzi dezaten, erderara ezertan jo gabe.

Euskal-idazleak Euskaltzaindiari egin dioten eskaria, Eusko-lkaskuntzaren bitartez ta joan dan udarako ikastaro motxaren ondoren auxe izan da: Euskaltzaindiak, berari dagokion nagusitasunez, soñu edo bila ditzala itz-beñi txortatxo oiek. Ortan jardun du euskaltzaindi-batzorde batek, amar egunen bitartean, ta Batzorde onen lanak oraintxe dakuskite beste euskaltzañak. Batzorde onen lanak oso-osoak izan diralako, Azkue jaunak beste euskaltzainengandik auxe iritxi nai luke: Auferantzean, bi ñla betetik bein Batzorde au bildu dedila, asitako lanak jaraitzeko. Baietz dasaiote euskaltzain geienak, Urkijo ta Lakonbe beste alde izanik. Abek diote: Ez duela Euskaltzaindiak itz-beñi oien sortzale izan bear; baizik idazle berak ta eñiak sortu ta pixtuarazi bear dituztela, idazki-lanak aufera dijoazenez ta eñiak eman litzazkenez (1)

Ta beste gai batzuek bigaramonerako lagarrik otoitzez amaitu da batzañaldi auxe.

Bilbo'n, Bizkaiko Aldundi-Jauregian 1928'ko II-beltzaren 27'an.

Auñeko agerian aipatzen diran euskaltzain eta urgazlea batzañaldira datoz ta asipeneko otoitza egin du maipuru jaunak.

(1) Gauza saila deritzatela, itz-beñien arazo auxe ñlabete gutxi bafu erabakitzea, au da, esku-iztegia egin liteken asti labuñean. Beren iritxiz lenbiziko, esku-iztegi onek azaldu bear luke ta gero beste ekitaldi batean, asiro ta sakonki, itz-beñi onen arazoa arlorra erakafi.

I.—Aita Intzak Napoñan bildutako itz-beñi batzuek dakarzki, Iztegi beñari ezarñi bear zaizkionak. Aita onek berak ekañi dizkigu Prantzizko Iribañen jaunak, Anizko apaizak, bildu dituen beste itz-beñi batzuek. Len ere jaun onek berak beste itz-beñi-ixorta biali zigun.

II.—Eguskitza jaunak ere badakarzki Bizkaian eta liburuetan bildu dituenak.

III.—Lakonbe jaunak irakuñi digu Pierres Laffitte apaiz gaztearen lan bat. Euskal-aditza gai dakar.

Euskaltzaindiak apaiz jaun au urgazle izendatu du, orain gutxi il dan Darricarrere jaunaren ordez. Onen il-samina batzaraldian azaldu da.

IV.—Diruzaiak urteko diru-gora-berak adierazi dizkigu ta aurtengoak ere, gutxi gora-bera, berdiñak izango dirala esan digu.

V.—Azkue jaunak Iruñako Apezpiku jaunaren eskutitza irakuñi digu. Euskeraz idatzia da ta Gazteizera datoñelako zorionak agertuz idatzi zitzaionen erantzupena da.

Ta besterik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostia'n, Eusko-lkaskuntzako gela nagusian, 1929'ko Epañla'ren 29'an.

Batzaraldi ontan euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe, Etxegarai ta Intzagarai ta urgazletatik Aita Soloeta-Dima. Otoitzez asi da.

I.—Azkue jaunak *j* edo *i*-ren autua euskaltzain artera dakar. Diyo, *j*-tak, euskal-abotan, iru aboskera